

SENAR-EMAZTEAK-III

Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra

Hiru anaia eta lagun bat dira. Laguna emaztearekin, amaginarrebarekin eta semearekin bizi da.

Hiru anaiek esaten diote lagunari:

- Txo!, andrea jotzen duzu?

- Nik emaztea jo? Zergatik joko dut, ez baitut ezer ere bere kontra? – erantzun lagunak.

- Horrek ez du zer ikusirik! –erantzun anaiek-. Zu etxera zoazenean jo egizu emaztea, emaztea jo behar da eta. Ez baduzu ezer ere bere kontra, bolatu. Hara, bisigua frijituta jartzen dizula, erreta nahi duzula esan eta erreta nahi baduzu saltsan nahi duzula esan

Honetan emazteak erosi du bisigu haundi bat eta hain handia da zati bat frijituta, beste bat erreta eta hondarra saltsan jarri diola.

Badator gizona etxera (ezkaratzean daude gizona, emaztea eta amaginarreba. Hau pasatzen den artean, hiru anaietako bat dago atean entzuten, gizonak zer esaten dion andreari) eta esaten dio:

- Emaztea!, egin duzu afaria?

- Bai, bisigua duzu.

Emazteak bisigu frijitua ematen dio. Amaginarrebak aharrausi egin eta esaten du:

- Heldu da lehena.

Eta atean dagoenak usten du beragatik dela.

Gizonak esaten dio emazteari:

- Ez dut nahi frijituta! Erreta nahi dut!

Emazteak erretakoa ematen dio. Bigarren anaia heldu eta amaginarrebak bigarren aldiz egiten du aharrausika, esanez:

- Heldu da bigarrena.

Eta atekoek pentsatzen dute eurengatik diodala.

Gizonak berriz esaten dio emazteari:

- Ez dut erreta nahi! Saltsan nahi dut!

Eta emazteak saltsan dagoena ekarri.

Badator hirugarren anaia eta atsoak hirugarren aharrausi egiten du, eta dio:

- Hirugarrena etorri da, banoa ohera.

Eta ate-postan daudenek pentsatzen dute eurengatik esaten duela, eta pentsatzen dute sorgina dela eta korrikan alde egiten dute.

Andreak diotso:

- Zer gure duzu ba?, ez duzu frijituta nahi, ez duzu erreta nahi, ez duzu saltsan nahi. Zer da nahi duzuna, bada?

Erantzuna:

- Kaka gura dut!

Eta emazteak apur bat lehenago kaka egin duen orainela, eta esaten dio:

- Hemen duzu kaka ere!

Anton Erkoreka

Etnografía de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniense Bilduma

Bilbao, 2000